

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

86/2025 Foru Dekretua, maiatzaren 30ekoa, onespena ematen diona ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokien sarietarako hautagaiak baloratu behar dituen epaimahaiaren izendapenari

Martxoaren 25eko 51/2025 Foru Dekretuaren bidez, apirilaren 7ko 57/2025 Foru Dekretuaren bidez zuzenduta, ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokien sarien deialdia onartu zen.

Deialdiaren zazpigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, epaimahaia izendatu beharra dago.

Arlo Estrategikoen Zuzendaritzak egindako txostena ikusi da.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokien sarien epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Honako hauek izango dira epaimahaikideak:

— Javier Gorbeña Mardones, Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko teknikaria.

— Kristina Apiñaniz Saez de Maturana, Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Ituna 9. GJHren lantaldearen aldetik.

— José María Fernández Alcalá. IHOBEn ekonomia zirkularraren arloko zuzendaria.

Epaimahaiko idazkaria Mónica Puente Rodríguez izango da, eta ordezkoa, Erika Muñoz García.

Bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu dadila agintzea, guztiek jakin dezaten, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Arlo estrategikoen zuzendaria

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO